



Tailerra: "Gure seme-alaben hezkuntza emozionala lantzea, bikote-harremana zaintzea eta familian balioetan heztea lantzea". Asier Sesmak emango du.

Azaroaren 8, 15 eta 22an, Iturmendiko udaletxean, 18:30etik 20:30era

GURE SEME-ALABEN HEZKUNTZA EMOZIONALA LANTZEA

Gure seme-alabak hezteko prozesua oso aberasgarria da, baina, aldi berean, zorrotza eta nekagarria ere bada. Harremanak oso kontu pertsonala dira, eta arlo horretan zalantzak, frustrazioak eta gatazkak sor daitezke, batzuetan ezohiko moduan konpondu beharrekoak. Oinarrizko printzipio batzuk eta harreman-jarraibide erraz batzuk daude, eta horietan oinarritu gaitzke gure hezkuntza-estiloa aldatzeko. Helburua da elkarrekin bizitzeko eta gatazkak errurik eta aurpegiratzerik gabe konpontzeko modu bat aurkitzea, gure seme-alaben beharrak eta sentimenduak errespetatuz eta gureak ere errespetatuz.

BIKOTEAN KOMUNIKAZIOA SUSTATZEA

Bikote zoriotsu ororen osagairik garrantzitsuena izendatzeko eskatuko baligute, komunikazioa aukeratuko genuke. Etengabeko elkarrizketa izan behar du bikoteak. Elkarrizketa horrek askotariko gaiak jorratzen ditu: eguneroko bizitzako gaiak, planak, beharrak eta nahiak ezagutzea, bizitzako beste esparru orokorrago batzuetan gertatzen ari denari buruzko iruzkinak, gatazkak eta horiek konpontzeko saiakerak, erabakiak elkarrekin hartzea, gure izatearen alderdi intimoenen adierazpena. Hori guztia komunikazioa da.

BALIOEN HEZKUNTZA FAMILIAN LANTZEA

Pertsona arduratsu eta zoriotsuak izateko gure jokabidea orientatzea ahalbidetzen diguten printzipioak dira balioak. Jabetzen al gara zer balio transmititu nahi dizkiegun gure txikiei? Hausnarketarako gai garrantzitsua.